

# KANABIS


KANABIS ERABILTZAILLEENTZAKO KOMIKI INFORMATIBOA



ailaket!!


Kanabisa bi era ezberdinetan agertzen zaigu: batetik hashis eran, lorearen erretxina dena, bestetik marihuana, lorea bera dena. Kontuan izan, marihuana, saltzen den hashisa baino psikoaktiboagoa dela.

**ERA BEREAN, NAHIZ  
ETA ALKOHOLA  
EDAN, GOIZEAN  
GARAGARDO BAT  
ETA GAUEAN  
WHISKY BAT  
EDATEKO GOGOIA  
DUDAN  
BEZALA.**



Saltzen den hashisa, sarritan, aizunduta (nahastuta) egoten da. Hau dela eta, erabiltzaile askok orain euren belarra landatzen dute.

**BAI, JAKINA, KALEAN EROSTEARENA GERO ETA OKERRAGO  
DAGO, EZ DAKIZU ZER EROSTEN DUZUN ERE.**




Hashisaren aizuntzaileen artean honako hauek daude: lurra, landare beraren hondarrak (gehiegi txikitzen dutena) eta kolofoniaren erretxina (zuhaitz baten erretxina). Mozteko erabilitako gai hauek ez dira erretxina baino txarragoak (hashisa honekin eginda omen dago). %1 eta %13 arteko purutasuna daukate. Hori bai, usain bitxia edo zapore txarra badauka, hobeto botatzea edo AiLaket!!era eramatea analiza dezaten.

**HASHIS BAT OSO OSO TXARRA DELA IKUSTEN BADUZU, KONTUZ NORA BOTATZEN DUZUN, AGIAN INGURUAN EZ BAITA BELARRA HAZIKO URTETAN.**



Marihuanak, erretzerakoan, tabakoak baino galipot gehiago sortzen du. Kanabisa (brokodilatatzaila), tabakoarekin nahasteak daukan eragina, biriketan galipot gehiago geratzea da. Horregatik hobe da filtro bat erabiltzea.

**NAHIZ ETA ONENA LURRUNTZEA IZANGO LITZATEKE, HORRELA, EZ KERIK EZ BIRIKA BELTZIK, ETA GAINERA GEHIAGO IRAUTEN DIZU.**



Adi "blankoiekin" (zurbil jartzea tentsio beherakadaren ondorioz). Batez ere alkoholarekin nahastuz gero eta ezer jan gabe bazaude gertatzen da, denbora laburrean asko erretzean edo belar oso indartsuak hartzean. Bururatzen bazaizu, zerbait gozoa jan, leku ireki batera joan eta albo batera etzaten bazara hobea; eta lasai, pasatuko da eta! Txarreruntz jotzen duela ikusiz gero, anbulantziari deitu.


**ZEINEK ESANGO ZIDAN NIRI, AZKENEAN KANUTOEN ALDE EGONGO NINTZELA?**



Sukaldatzen baduzu (galletak, bizkotxoak...), kontuz! Sukaldatzean, erabiliko duzun hashis edo belar kopuruak askoz txikiagoa izan behar du, eta itsua indartsuagoa eta luzeagoa izango da... informa zaiten lehenago.

**BEITU, PÁSTEL GEHIO EMATEKO ESATEN ZIGUNA, ERAGINIK EZ ZIOLAKO EGITEN.**

**AH!! EZ DAKIT ZER GERTATZĒN ZIDAN, ARRARO SENTITZEN NAIZ, BURUA JOATEN ZAIT.**



Frogatuta dago, kanabisaren erabilerak, epe laburreko memoria eragina duela. Erretzeari utziz gero, zure ohiko memoria eta kontzentrazio mailara itzuliko zara.


LELOKERIAK....



Ez da gauza bera gurasoekin edo lagunekin erretzea; ez da berdina ikasteko erretzea edo dantzatzeko. Zain ezazu noiz, non eta zergatik erretzen duzun, horrela zure osasunak eskertuko dizu.


**BAINA NOLA ETOR ZAITEZKE ITSU HORREKIN INEM EKO ZUZENDARIA IKUSTERA?**

**USTE NUEN EMINEN EKO KONTZERTU ZUZENEAN IKUSTERA GENTOZELA....**



Bere eraginei etekin gehiago atera nahi badiezu, noizean behin erre. Aholku bat: 3 egunetik 1 erre gabe. Tolerantzia baxu batek kanabisaz gehiago gozaten laguntzen du.

**NOSKI, KROKETAK ETA TXIPIROIAK IZUGARRI GUSTATZEN BAZAIT ERE, ZIUR GEHIAGO GOZATUKO DUDALA NOIZBEHINKA JANEZ, EGUNERO JANDA BAINO.**



kanabisaz hartzeak ez du esan nahi beste gai batzuk hartzera bultzatuko zaituenik. Bestalde, kanabisa beste gai batzuekin nahasteak, gutxiago gozatea eragin dezake.

**KANUTOEK DROGA GOGORRETARA ERAMATEN ZAITUZTELA PENTSATZEA DA, PENTSATZEA BEZALA HERRIKO PLAZAN BOLLICAOAK JATEAGATIK, YONKIEK EGITEN DUTEN MODUAN EURAK BEZALA BUKATUKO DUZULA.**



Kanabisa eukitzeagatik eta leku publikoetan erretzeagatik isuna jarri ahal dizute. Landatzeagatik gartzelara joan zaitezke eta saltzeagatik ziurra da gartzelarena. Hauek arrisku legalak dira, balora itzazu.

EA ZER DUGUN HEMENDIK...


HARA, DENA  
ARGITZEN DUEN  
ZIGARROKINA!!



Bukatzeko, kontuan hartu konsumitzearen erabakia zurea besterik ez dela: zuk erabakitzen duzu eta ez beste inork.

TIRA MOTEL, EZ  
ZAITEZ  
BEREZITXOA IZAN  
ETA ERRE, KOPON.

TIRA MOTEL, EZ ZAITEZ BEREZITXOA  
IZAN ETA PUTZU HONETATIK EDAN,  
KOPON.



# ailaket!!

Ai laket!!-en kontsumo arduratsuaren eta erabilerak eragindako arriskuen ikuspuntutik autogestioaren askotariko sustantzia psikoaktiboekin bizitzen ikastearen aldeko apostua egiten dugu.

Izan ere, drogak kontsumitzea ala ez, pertsona helduek informazioa jaso ondoren askatasunez hartu beharreko erabakia dela uste du. Ai laket!!-en asmoa, beraz, ez da erabaki horren gainean eragina izatea, baizik eta informazio zehatza, praktikoa eta sinesgarria eskaintzea, kontsumitzeko erabakia hartzekotan, erabakia ondo hausnartutakoa izan dadin eta kontsumitzaileek zentzudun jokatzeko informazioa izan dezaten.

 [www.ailaket.com](http://www.ailaket.com) - [ailaket@ailaket.com](mailto:ailaket@ailaket.com)  
Ai Laket!! Tel: 945 23 15 60

Jesusen Mirabeen Sortzailearen kalea,  
40 etxabe.  
01001 Vitoria-Gasteiz (Araba)

argitaratua:

ailaket!!

laguntzaileak:



egilea:

ABARROTS